

Sagar urte ez hain ona aurten Euskal Herrian, Asturiasen asko den bitartean

DONOSTIA (EGIN).— Sagardo-
 zaleekin egin diren negoziaketen bu-
 ruan akordio erabatekorik lortu ez
 bada ere, EHNE sindikatuak 18 pe-
 zetako minimoa garantizatzen iritxi
 da Goierriko sagarrarentzat, sagar-
 dozale zenbaitek prezio hori ordain-
 itzeko hitza eman baitio sindikatuari.

Negoziaketan zehar bi prezio ba-
 rajatu ziren; 17,50ekoa kiloko sagar-
 dozaleen aldetik eta 18,50ekoa sa-
 garzaleen aldetik. Bilera zenbaiten
 buruan negoziaketak aurrerabiderik
 gabe geratu ziren eta sagardozaleen
 asanbladan akordiorik lortu ez bazu-
 ten ere horietako, gutxi batzuk 18
 pezeta ordaintzeko garrantia eskaini
 diote sindikatuari "hemengo jeneroari
 lagundu behar zaionez".

EHNE sindikatuak kanalizatuko
 ditu beraz Goierriko sagar horiek
 prezio horretan. Zerbitzu hori jene-
 ralean sindikatuko partaideei baka-
 rrik eskaintzen bazaie ere, sagar urte
 eskas samarra dela ikusirik edonori
 aukera hori ematea erabaki dute.
 Sagarzaleek beraz 88 48 69 telefo-
 nora jo eta gutxigorabehera zenbat
 kilo dituen eman behar dute abisu,
 ondoren sindikatu horretako Sagar
 Batzordekoak kamioiarekin biltzera
 joan daitezten. Horiek zuzenean sa-
 gardozaletan emango die sagarra eta
 hamabosten bat egun barru ordain-
 duko zaie dirua sagarzaletan.

EHNE sindikatuak eskaintzen
 duen bitartekotasun hau kondizio
 nahiko eskasetan lortu da, Euskal
 Herrian sagar urte nahiko eskasa
 izanik ere, Asturiasen sagar asko
 baita aurtengoan. Aurten sagar urtea
 tokatzen bazen ere, ez da sagar ge-
 hiegirik euskal sagastietan eta Astu-
 riasen aldez asko da ona gainera.
 Baldintza horrek kondizionatu du
 negoziazio prozesoa.

"Asturiasen sagar asko delarik, ne-
 kazariak 17 pezeta eskatu dute kiloko
 eta industrialek 15 bakarrik eskaini
 eta negoziaketak hautsi egin dira.
 Hala ere, hamasei pezeta inguruan
 salduko dira hango sagarrak eta ga-
 rraioak kiloko pare bat pezeta igotzen
 duela kontutan hartuz, hogeitaz 17
 azpitik ekar daitekeela, kalkulatu
 dugu, hango sagarra euskal sagarde-
 tegietara", deklaratu zion Andoni Le-
 kuonak egunkari honi. "Guk base-
 rrian 18 pezetan saltzen dugun sagar
 hori 20 pezetan jar daiteke sagardote-
 gian, edo 20,50 pezetan eta horrek
 baldintzatu du negoziaketa guz-
 tia. Gauzak honela ez dugu uste era-
 bateko prezio txarra denik", esan
 zuen.

Prezio hau Goierrikoa izaki, Bete-
 rrikoa altuxeagoa izan bide da aurt-
 tengoa ere, sagardozaleen ustetan,
 kostaldeko sagardoak kalitate hobea
 eskaintzen baitu.

Ehuneko 90 kanpoko sagarra

Euskal Herriko sagardotegi gehie-
 nak Gipuzkoan kokatzen dira eta sa-
 garzaleak ere bai, Bizkaian Karran-
 tza aldean direnak salbu ez baita
 sagar askorik produzitzen.

Hala ere, Gipuzkoako sagastiek ez
 dute hemengo sagardotegiak ase-
 itzeko hainbatik ematen. "Guk egin

dugun sistemaren bidez 150.000ren
 bat kilo kanalizatuko ditugu, Beterri-
 koak berek beren kabuz eramaten
 baitute sagarra sagardotegietara. Guz-
 tira, dena den, ez da milioi bat kilo
 baino gehiago izango Gipuzkoan eta
 horrekin ez da aski probintzian diren
 sagardotegiei abasto emateko", zioen
 Andoni Lekuona, EHNEko tekni-
 koak.


Bertako sagarrarekin aski ez
 denez, Asturiasera jo ohi dute he-
 mengo sagardozaleek.

"Oraindik ez dago sagarrak zenbait
 eman dezakeen esateko hainbesteko
 esperientziarik gure artean. Gauaderi-
 tzarekin ezin dira sagasti haundiak
 landu, behiak larrean ibiltzen baitira,
 baina nik uste dut horretara dedika-
 tuz gero errentagarria izan daitekeela
 sagarra ere", zioen Lekuonak tama-
 lez Diputazioak hemengo sagarra
 promozionatzeko ezarri zituen neu-
 rriek oraindik ez dutela fruturik
 eman adieraziz.

Antton Karrerak, Fraisoro deitu
 eskola eta granja esperimentaleko
 zuzendariak egunkari honi adierazi
 zionez, datorren urtean hasiko dira
 Diputazioak ekarri dituen 20.000
 sagar landara Gipuzkoan zehar alda-
 tzen.

"Hemen bertan ez da sagar landara
 silbestrekerik edo gutxi da behintzat eta
 kanpotik ekarri genituen 20.000 lan-
 dara, gero hemengo barietateekin
 txertatu ditugunak. Horiek datorren
 urtean banatzen hasteko prest egongo
 dira eta oso merke gainera. Hala ere
 laguntza horri errentabilitate bat ate-
 ratzeko nolabaiteko kontrola eska-
 tuko zaio erosleari. Gutxienez 50
 sagar landara sartzeko eskatuko zaio
 baserritarrari eta ondoren teknikoak
 joango dira nola zaindurik diren ikus-
 tera", esan zion Karrerak egunkari
 honi. Bestalde, Fraisoroko granja
 horretan euskal sagar arbola guztien
 klasifikazioa egiteko analisiak egiten
 hasi dira. "Barietate bakoitzaren ana-
 lisis esautiboak egiten ari gara;
 azukre kopurua, azidez, zenbat
 mosto ematen duen etab. seinalatuz
 nolabait barietate horiek estandariza-
 itzeko. Aspaldi eginik behar zuen lan
 horri iaz ekin genion", esan zuen.

Antton Karreraren ustetan, saga-
 rrak eskaintzen duen errentakortasu-
 naz ez da dudarik. "Nire ustez saga-
 rrak kiloko 15 pezeta eginda ere
 errentagarria da eta zeresanik ez pre-
 zio altuagoak eginda. Eta horren sus-
 moa badute jadanik baserritar askok,
 eskabideak iaz dezente izan baitziren
 eta aurten gehitu egingo baitira. Dena
 den horretarako sagar arbolak zaindu
 egin behar dira, zainduz gero produk-
 zioa asko gehitzen da. Ondo zainduz
 gero urteroko kosetxa ere lor daiteke,
 sagarraren zikloa bi urtekoa izanik
 ere", esan zuen, sagarra urte gutxi
 barru asko ugalduko den esperantza
 agertzen zuelarik. "Nik ezagutzen
 ditut aurten ere sagarrarekin milioi
 erdi bat eskuratuko dituzten baserri-
 tarrak", seinalatu zuen azkenik eta
 hori baserri batetako produkzioan sa-
 garrak diru iturri bezala duen leku
 txikia kontutan hartuz, zerbait da.



«Ezagutzen ditut sagarrarekin milioi erdi bat aterako duten baserritarrak».